



Nire anaia

ILETSUA




Asko pentsatu eta txakur baten beharrak ikusi ondoren, nire gurasoek Sam
adoptatzea erabaki dute.

Badakigu bizitza osorako dela, eta ezin dugu alde batera utzi bere jabe ohiek
egin zuten bezala.



Min eta tristura handia eragin ziotela esan ziguten, baina hori amaitu da,
guk beti izango dugulako.


Familiako kide bilakatu da, nire anaia iletsua dela diot.



Amak eskolara eramaten nauenean, lorategi batetik igarotzen gara Samek
pipia eta kaka egin ditzan.

Beti eramaten dugu poltsa-sorta bat kakak biltzeko, eta botila bat ur pipien
gainean botatzeko.

Horrela, kaleak garbi mantentzen laguntzen dugu.






Ikastetxetik irtetean, aitona eta anaia iletsua nire bila etortzen dira. Samek lametoiekin eta isatsa mugituz agurtzen nau, eta aitonak musu handi batekin.

Nire ikaskideek arretaz laztantzeko aprobetxatzen dute, ez estutzeko, ezta minik ez emateko ere.

Behin etxean, denok elkarrekin bazkaltzen dugu. Bere janaria jangarrian dauka eta ura edalekuan. Oso garrantzitsua da bere edalekuak beti ur garbia eta freskoa izatea.


Bazkaldu ondoren, siesta egiten dugu. Amak ikusten ez nauenean, sofara igotzen uzten diot.



Etxeko lanak presaka egiten ditut, baita askaldu ere, Samekin parkean jolasteko astia edukitzeko. Bere jokorik gogokoena jaurtitzen diodan pilota jasotzea da.

Pilota ez da tenisekoa, horiek oso txarrak da bere hortzetarako.

Txakurrek pilota berezia behar dute.




Asko gustatzen zait eskuilatzea eta txakur-ile-apaindegira eramatea oso zikin dagoenean.

Niri pena handia ematen badit ere, amak esaten dit oso garrantzitsua dela albaitariarengana eramatea, txertoa jar diezaioten eta gaixotasunik har ez dezan.



Eta zu, animatzen zara txakur bat adoptatzera eta merezi duen bezala zaintzera?



Argitaratzailea: © Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioa. Idazkaritza Nagusi Teknikoa. Argitalpen Zentroa
NIPO linean: 129-23-027-0
Idazlea: Cristina Soler
Diseinua eta maketazioa: MIC argitaletxea. Jatorrizko testua: Cristina Soler. Ilustrazioak: Juanjo Jiménez
<https://cpage.mpr.gob.es/>

Baimena ematen da irakaskuntza-erakundeek, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko beste edozein erakunde pribatuk material hauek online zabaltzeko eta erreprografikoki erreproduzitzeko, irakaskuntza- eta dibulgazio-helburuekin. Bi kasuetan, osotasuna eta argitalpen-kredituak errespetatu behar dira. Beste edozein erabileratarako, baimena eskatu beharko zaio Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioari, horien gaineko eskubideen titular den aldetik.

Nire anaia ILETSUAREN

Jakin nola aldatu zitzaien bizitza Sami familia konprometitu eta maitekor batek adoptatu zuenean. Jabetza arduratsua, abandonurik eza eta adopzioa sustatzen dituen ipuina.

